


IPURTARGIA

Ipurtargia kakalardoen familiako [intsektu](#) bat da. Ingurune bero eta epeletan aurki dezakegu, oso ohikoa da [udako](#) gauetan ikustea. Gauez duten argiarengatik dira ezagunak, baina jende gutxik daki [kakalardo](#)en familiakoak direla benetan. Ipurtargi gehienek hegoak dituzte, baina ez guztiek; hori da beste izaki [luminiszenteengandik](#) bereizten dituen ezaugarria.

Non bizi dira?

Ipurtargiak inguru beroetan bizi dira, herrialde epelagoetan, eta gauez ateratzen dira udan. Intsektu hauei ingurune hezeak gustatzen zaizkie; horregatik [Asia](#) eta [Amerikako](#) lurralde hezeetan aurki daitezke. Inguru lehorragoetan aurkitzen badira, [laku](#)en ondoan izaten da normalean.




Nola ugaltzen dira?



Ipurtargien arteko ugalketa gau-limurketarekin hasten da. Oro har, arrek, bikotea bilatzeko, hegaldi berezia egiten dute. Emeek, era berean, dirdira berezi batekin erantzuten dute eta honela bikoteka elkartzen dira. Hortik egun batzuetara emeek arrautzak errungo dituzte.

Nola egiten dute argia?



Ipurtargiaren argia

Ipurtargiek sabelaldean argidun organoak dituzte, oxigenoa hartzerakoan zeluletan daukan luziferina sustantziarekin erreakzio bat gertatu eta argia sortzen da.

Espezie bakoitzaren argia desberdina da; horri esker, errazago gertatzen zaie bikotekidea aurkitzea. Argia normalean intermitentea da. Argi hau defentsa-mekanismo bat ere izan liteke, argi hau igortzerakoan beraien harrapatzaileei ez zaielako janari jangarria iruditzen.

IRAKURMENAREN GALDERAK. Aukeratu egokia den esaldia:

1.- Non bizi da ipurtargia?

- a. Leku hotzetan.
- b. Ingurune bero eta epeletan.
- c. Oso lehorrak diren lekuetan.

2.- Zergatik dira ipurtargiak oso insektu ezaguna?

- a. Oso soinu berezia egiten duelako.
- b. Kilimak egiten dituztelako.
- c. Gaez argia dutelako.

3.- Nola ugaltzen dira?

- a. Arrek, bikotea bilatzeko, hegaldi berezia egiten dute.
Emeek, era berean, dirdira berezi batekin erantzuten dute.
- b. Arrek arrautzak jartzen ditu.
- c. Arrek eta emeek dantza berezi baten ondorioz elkartzen dira, isil-isilik.

4.- Nola egiten dute argia?

- a. Ipurtargiek sabelean pila bat dute.
- b. Ipurtargiek sabelaldean argidun organoak dituzte, oxigenoa hartzerakoan zeluletan daukan luziferina sustantziarekin erreakzioa gertatu eta argia sortzen da.
- c. Ipurtargiek gaez anhidrido karbonikoa hartzen dutenean argia sortzen du.

5.- Zertarako erabiltzen dute ipurtargiek bere argia?

- a. Ipurtargiek bere argia, gauean ondo ikusteko eta iluntasunean ez galtzeko, erabiltzen dute.
- b. Ipurtargiek bere argia defentsa-mekanismo bat bezala erabiltzen dute. Argia ikustean, harrapatzaileei ipurtargia ez zaie animalia baten janari jangarria iruditzen.
- c. Ipurtargiek bere argia taldeka elkartzeko eta elkarrekin ibiltzeko erabiltzen dute.

IKUSI ONDORENGO BIDEOA eta gero elkartu esaldiak gezien bidez, ea esaldi bakoitzaren egia ala gezurra den.

ZERGATIK EGITEN DUTE DISTIRA IPURTARGIEK? ("izaki bizidun argidunak" atala)

-Las luciérnagas pueden encontrarse cerca de una duna.

VERDAD

-La luciérnaga es un tipo de escarabajo

-La luciérnaga vive alrededor de 1 mes

-La luz de la luciérnaga puede ser: blanca, amarilla y naranja.

MENTIRA

-Por la noche, con la luz de la luciérnaga se puede leer el periódico.

-Algunos tipos de luciérnagas, las hembras se comen al macho.